

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Aguraingo udalerriko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek 2024/2025 ikasturtean egin beharreko eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko laguntzen deialdiaren oinarriak

BDNS (Identif.): 818857.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/conocatoria/818857>).

Hezkuntza sistemaren barruan parte hartzea eta berrikuntzak egitea sustatzen duen politika-gara dadin, esku hartzen duten sektore guztiek garrantzi nabarmena izan behar dute; azpimarraztekoak dira, batez ere, legerian ezarritako bideetatik ikasleen gurasoen elkarteek egin ditzaketen ekarpenak.

Jakina da ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek zailtasun ekonomikoak dituztela, eta hori, zenbaitetan, ikasleen gurasoen baliabide ekonomiko mugatuen ondorio dela. Zentzuzkoa dirudi, beraz, laguntza emateak, aurrekontu mugen barruan, bai eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko, bai jarduera horietarako azpiegiturak erabili ahal izateko. Aurrean azaldutakoaren arabera, bidezkoa da laguntzen deialdia egitea horretarako ezarritako aurrekontu zuzkiduraren kargura.

XEDATZEN DUT

I. Kapitulua. Deialdiaren xedea

1. artikulua

Laguntzen deialdia egitea 2024/2025 ikasturterako, Aguraingo udalerriko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak eta horien ondoriozko gastuak finantzatzeko. Gehienez 6.000,00 euroko laguntzak izango dira (326.481.015 aurrekontu partida).

Eskolaz kanpoko jardueratzat joko dira ikastetxeek euren ohiko jardueran ezin eskaini dituztenak.

Deialdi honetatik berariaz baztertzen dira:

Irakaskuntza arautuko curriculum-irakasgaien tratamendu paraleloa egiten duten jarduerak.

“Aguraingo euskararen eguna” eta “eskola kirola” programako egitarauetan dauden ekintza guztiak, egitarau horiek toki erakundearen, Arabako Foru Aldundiaren eta ikastetxeen arteko tratamendua jasoko baitute.

II. Kapitulua. Betekizunak

2. artikulua

1.) Ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek eskatu ahal izango dituzte laguntza hauek, zuzenbidearen arabera eratuta badaude, indarreko araudiari lotzen zaizkien xedeak badituzte, eta dagokien erregistroan inskribatuta badaude, ikasleen gurasoen irakaskuntza elkarte gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen gurasoen elkarteak arautzen dituen otsailaren 10eko 66/1987 Dekretuak 6. eta 11. artikuluetan ezartzen duen moduan (1987ko apirilaren 7ko EHAA).

2.) Ezarritakoa betetzeko, deialdi honetara bildu nahi duten elkarteek dagokien elkartearen erregistroan inskribatuta egon beharko dute eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

3.) Ez da onartuko ikastetxearen izenean edo ikasle taldeen izenean aurkeztutako eskaerarik, ez baldin bada kasuan kasuko ikastetxeko ikasleen gurasoen elkartearen esparrukoa, guraso elkarteak baitira deialdi honetako onuradun bakarrak, hura gauzatu edo/eta eskatu bitartean.

III. Kapitulua. Eskaerak eta aurkezteko epea

3. artikulua

Eskaera, ikasleen gurasoen elkartearen lehendakariak sinatuta eta Aguraingo Udaleko alkateari zuzenduta, telematikoki aurkeztuko da. Deialdi honen I. eranskinean dagoen eredia erabiliko da eskaera egiteko:

- a) I. eranskineko eredia, behar bezala beteta.
- b) Elkartearen erregistroan inskribatu izanaren froga-agiria.
- c) 2024/2025 ikasturtean elkarteak zenbat kide dituen guztira.
- d) 2023/2024 ikasturtean guztira zenbat ikasle egon diren ikastetxean matrikulatuta, eta 2024/2025 ikasturtean guztira zenbat ikasle dauden ikastetxean aurrematrikulatuta edo matrikulatuta.
- e) Eskola kontseiluko idazkariak egindako akta. Bertan ziurtatuko da kontseilu horrek onartu egin duela ikasleen gurasoen elkartearen lehendakariak aurkeztutako eskaera, 2024/2025 ikasturterako proposatutako eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko dena.
- f) Jardueren zerrenda, eta jarduerak finantzatzeko aurrekontua, behar bezala xehakaturik.
- g) Zerbitzu teknikoek edo organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko dute zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela, bai eta nortasuna ere (nortasun agiri nazionala/identifikazio fiskaleko zenbakia). Hala ere, erakunde eskatzaileak berariaz egin diezaioke uko egiaztapen horri, eta, hala egiten badu, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du. Gainera, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan 2. paragrafoan xedatutakoarekin, dirulaguntzaren eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak baimena ematea Aguraingo Udalari zuzenean eskura dezan beste edozein administrazio publikok egindako dokumentazio guztia.
- h) Erakunde eskatzaileak administrazio honetan edo beste edozein administrazio publikotik aurkeztu badu eskatutako dokumentazioa, eta aldaketarik ez dela egin berariaz adierazten badu, ez du aurkeztu beharko dokumentazio hori, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan 3. paragrafoan xedatutakoarekin. Hala ere, dokumentu horiek noiz eta zer administrazio organotik aurkeztu dituen adierazi beharko du. Eskabidea aurkezteak berekin dakar baimena ematea organo kudeatzaileari dokumentazio hori eskura dezan, baina horrek ez du esan nahi baimena berariaz ukatu ezin denik. Kasu horretan, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

4. artikulua

Eskaerak aurkezteko 15 egun baliagarriko epea egongo da, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

IV. Kapitulua. Ebaluazio batzordea eta hautatzeko irizpideak

5. artikulua

1.) Kultura batzordeak ebaluazio batzorde tekniko bat eratuko du, laguntzak adjudikatzeko proposamena egin diezaion Tokiko Gobernu Batzarrari. Ebaluazio batzorde tekniko horretan honako hauek izango dira:

- Udalaren kirol teknikaria.
- Gizarte eta kultura teknikaria.

2.) Eskerak baloratzeko eta dirulaguntzen zenbatekoa erabakitzeko irizpideak honako faktore hauetan oinarrituko dira (gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira):

a) Ikastetxeak deialdiaren xede den ikasturtean zenbat ikasle dituen baloratuko da, eta balorazio bikoitza emango zaie funts publikoekin bakarrik finantzatzen diren ikastetxeei (5 puntu).

b) Aurkeztutako egitarauaren koherentzia eta udalerriko kultura eta kirol jarduerekin duen lotura baloratuko dira (5 puntu).

c) Ikastetxe eskatzaileak barnetegiak egiten baditu, 600,00 euroko oinarritzko tartea ezarriko da.

3.) Dirulaguntzaren xede diren eskolaz kanpoko jardueren egitarau osoa euskara hutsean garatu beharko da.

V. Kapitulua. Ebazpena

6. artikulua

Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko du deialdi hau.

7. artikulua

Deialdi honen ebazpena Aguraingo udalerriko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarte eskatzaileei jakinaraziko zaie ahalik eta lasterren. Ezarritako epean ebazpenik eman eta jakinarazi ezik, eskerak administrazio isiltasunaren bidez ezetsitatzat joko dira.

VI. Kapitulua. Laguntzak jasotzea eta justifikatzea

8. artikulua

1.) Laguntzak epe bakarrean ordainduko dira. Aldez aurretik, dirulaguntza kobratu behar duen elkarteak agiri bidezko justifikazioa igorri beharko du, alegia, 2024/2025 ikasturterako dirulaguntzaren xede den egitarau osoari dagozkion jatorrizko fakturak aurkeztu beharko ditu.

2.) Justifikazio hori 2025eko ekainaren 13a baino lehen aurkeztu beharko da; agiri guztiak Aguraingo Udaleko erregistroan aurkeztuko dira, eta honako hauek bilduko dituzte gutxienez:

a) Egindako jardueren memoria zehatza, helburuak baloratu eta ebaluatzeko berariazko atal bat edukiko duena.

b) Memoria ekonomikoa. Diru sarreraren kapitulan, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako laguntzen bidezko diru sarrerak jaso beharko dira, bai eta elkarteko kideen kuotak ere. Legezko betekizun hauek betetzen dituzten fakturak erantsiko dira:

- Jatorrizkoak izatea, edo Aguraingo Udaleko idazkaritzan konpultsatutako kopia.
- Jarduerarako emandako laguntzaren epearen barruko data edukitzea.
- Hartzailearen nortasun agiri nazionalaren zenbakia edo lizentzia fiskalaren zenbakia izan behar dute.

• Hornitzailearen zigilua edo sinadura izan behar dute.

• Aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorri behar dute.

c) Jarduera dela eta sortutako agiri inprimatu guztien memoria, non egiaztatuko baita Aguraingo Udalaren laguntzaren berariazko aipamena egin dela.

d) Elkartearen ordezkariaren zinpeko aitortpena, Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean dituela adierazten duena.

e) Dirulaguntza eman zen helburuetarako erabili dela dioen zinpeko aitortpena.

f) Helburu bererako eskatutako eta jasotako dirulaguntzen zinpeko aitortpena.

9. artikulua

1.) Deialdi honetan lortzen den laguntza bateragarria izango da beste administrazio publiko edo pribatu batzuen bidez lor litekeen beste edozeinekin, betiere bien baturak ez badu gainditzen dirulaguntza honen xede den gastuaren ehuneko 100. Gainditzen badu, deialdi honetako dirulaguntza murriztu egingo da, gaindikin horren zenbatekoa kenduz.

2.) Betiere, dirulaguntza jasotzen duten elkarteek xede bererako beste edozein dirulaguntza edo laguntza jasotzen badute, horren berri eman beharko diote Aguraingo Udalari.

3.) Gainera, elkarte onuradunek Aguraingo Udalari egiaztapen jarduketak egitea erraztu beharko diote.

4.) Elkarte onuradunak onartu egin beharko du ematen zaion dirulaguntza. Ildo horretan, dirulaguntza eman zaiela jakinarazi ondoko hamabost eguneko epean berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

10. artikulua

1.) Inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean, bidezkoa izango da jasotako laguntzak itzularaztea, aplikatu beharreko legezko interesekin batera:

a) Ikasleen gurasoen elkarteak laguntza xede baterako eskatu eta beste xede baterako erabiltzea.

b) Deialdi honetan xedatutakoa ez betetzea, edozein modutan.

c) Aguraingo Udalaren aurrekontuen kargurako dirulaguntzen onuradunek egungo lege araudian ezartzen zaizkien betebeharretariko baten bat ez betetzea.

d) Sortzen diren material inprimatu guztietan Aguraingo Udalaren laguntza berariaz ez aipatzea.

I. Eranskina**Eskaera**

..... jauna/andrea, ikastetxeko ikasleen gurasoen elkarteko lehendakaria. Elkartearen izena:
Elkartearen legezko helbidea:, Agurain.
Elkarteen erregistroan egindako inskripzioaren data: Inskripzio zenbakia:

Harremanetarako telefonoa:

Harremanetarako helbide elektronikoa:

Adierazten du

Gure elkartearen zuzendaritza batzordeak erabaki duena betez, eta Aguraingo udalerriko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek 2024/2025 ikasturtean egin beharreko eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko laguntzak emateko Aguraingo Udalak egin duen deialdiari helduta,

Eskatzen du

Deialdi horretako laguntza emateko goian aipatutako elkarteari, proiektatu diren xedeak lortu ahal izan daitezen. Honako agiri hauek erantsi ditut:

Elkarteen erregistroan inskribatu izanaren froga-agiria.

2023/2024 ikasturtean elkarteak zenbat kide izan dituen guztira.

2023-2024 ikasturtean guztira zenbat ikasle egon diren ikastetxean matrikulatuta, eta 2024-2025 ikasturtean guztira zenbat ikasle dauden ikastetxean aurrematrikulatuta edo matrikulatuta.

Eskola kontseiluko idazkariak egindako akta. Bertan ziurtatzen da kontseilu horrek onartu egin duela ikasleen gurasoen elkarteko lehendakariak aurkeztutako eskaera, 2024-2025 ikasturterako proposatutako eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko dena.

Jardueren egitaraua, eta jarduerak finantzatzeko aurrekontua, behar bezala xehakatuta.

Agurain, 2025eko otsailaren 19a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR